

egunekoa

Jose Luis Alvarez Enparantza 'Txillardegi'

(Idazlea)

Negutean

Luzaz egon naiz isilik, eta adiskide batzuek galdetu ere egin didate neure jokabidearen gakoaz, are kritikatu ere bai.

Eta erantzuna erraza da: arazo personal batzuek gain, asmo batek gidatu nau isilaldi honetan: egoera zail eta higuigarri betean, zipitzik ez ateratzea izan zitekeela, hain zuzen, zuhurrena. Eta baita lumaz beste armarik ez duen idazle baten kasuan, isiltzeko garaia zela.

Asteak eta hilabeteak joan zaizkit horretara, mutu, gertakariak elkarren ondokit azkar oso. Noiz arte horrela? Eta kinkaldi itsusi honetan harago isilik egotea koldarkeriatzat harote daitekeen beldurrez, lerro labur hauek bederen idaztera deliberatu naiz.

Lehen-lehenik, errealismo-dei bat egin behar dela iruditzen zait.

Alegia, mingarri gerta badakiguke ere (eta mingarri gertatzen zaizkigu azken asteotako gauza asko eta asko, zalantzarik gabe), errealitate hits hori den bezala ikusi behar dugu; geure burua gezurtatu gabe.

Presoen eta deserriratuaren tragedia hor dago (egun hauetantxe arduradunen kartzelaratzeak minberago utzirik), Nafarroako eraso lotsagarriak hor daude (espainiar agintari gorenaren ahotan gure hizkuntzaren aurkako iseka eta laido toteletan blaiturik), Euskal Unibertsitaterako ateka guztiak hesten dituen lege berria hor dago, AEK eta gainerakoen kontrako ostikoak eta mehatxuak hor daude, eta abar, eta abar.

IRTENBIDEA

Eta gaur, berriro ere, hor ikusten dut kinka honetatik irteteko ateka bakarra. Bakarra, bai. Gaur gaurkoz, Lizarra-Garazi edo hil

Egia. Batzuek ez omen dute «ulertzen».

Nik ere ez. Euskal barrena omen duten batzuen ezin-ulerketa horiek... ez ditut neronek ere «ulertzen».

Hots, hala ere, eta burua hotz atxikitzen baldin badugu, negutean gaude. Negu minean. Aspaldi honetan gure herriak pairatu duen neguterik gogorrean.

Zertan da gaur Katalunia? 1936an Maciá zen buru, eta kataluniar Estatua «mahai gainean» zegoen. Gaur, berriz, Pujol da espainiar Estatuaren pilare bat.

Zertan da Galizia? Fraga laugarren aldiz segidan nagusi. Galiziar abertzaletasuna, izerdigabeturik. Eta hizkuntza bera, erabat lardaskaturik, erabat erabilpenetik at eskaturik (Eguzkitzak berak egun hauetantxe gogorazi digunez), Portugal eta elkarte galaiko-portugesak oro (Castelaoren proiektuetatik ezin urrutiago), guztiz ahazturik. Galeusca? Iragana.

Borrokakiderik ez inguruan.

Baina, horrekin batera, *Frente Española* sendo eta tinko. PSOE PPren

morroi leial bihurturik. Espainiar ezkerria, berriz, hilaginean.

Frantzia aldetik, zer esango? Orain-txe ikusten ditugu frantsesak Korsikari esperantza izpiak oro erauztera deliberaturik. Italian ez dago Mussolini agintean; baina Berlusconi zer den badakigu. Eta Putinek ez du «terrorismoaren» trenaren kontrako Gurutzada horretan atzean gelditu nahi.

Eta, pastekeko ginga, Bush (Blair berretteraren eskutik) eta bere *Justizia Mugagabea*.

Bapo, mutilak! Giro bikaina!

Hots, atsegin ez bazaigu ere, hori dugu inguruan.

Orain ez da mementoa «Neguko Jauregiari» erasotzeko, eta ez gutxiagorik ere.

Negute betean gaude. Eta hau sakonki eta osoki sinetsiko ez duguno, jai.

Ez da memento egokia etsaia batzeko eta gure etxea barreiatzeko.

Orain, inoiz baino garbikiago, gure artean *minimoen mementoa da*.

Bihar, etzi, etzidamu, zer? Gure ondorengoek ikusiko dute. Ez guk.

Orain *Lizarra-Garaziren mementoa da*.

Orain Lizarra-Garazi lortzeko menia eman behar bada, *eman egin behar da menia hori*.

«Lizarra-Garazi ala hil» idatzi nuen aspaldixko.

Eta gaur, berriro ere, hor ikusten dut kinka honetatik irteteko ateka bakarra. Bakarra, bai. *Gaur gaurkoz, Lizarra-Garazi edo hil*.

zutabea

Juan Ramon Madariaga



Erauzketak

Donostiatik Bilborainoko bidea autoz egiten dudanean ikusten dut dezente harrizten nauen ikuskizun itsusi, krudel eta paregabe hori, nire aburuz zentzugabea dena. Bizkaian sartu berriari dugun azken sator-tunela igarota Durangoko mendiak ikusiko ditugu eder: Anboto, Alluitz, Astxiki, Untzillatz eta Mugarra. Azken honetan da eraso gertatzen den tokia.

Amantegi harrobia Mugarra duen Mañariarainoko beso eskerga jaten ari da. Ertz zorrotza, balea handi baten buztan luzea, elefante eroriaren tronpa ikaragarria, naturak luxuz eraiki duen harrizko eskulan estonagarria jan dute harria erauzteari ekiten dioten gizonek. Zuhaikez jositako zegoen azal hura kendu dute eta horrela, paisaia mingarria osatzen du mendiak urrunetik ikusita. Aurrean Mutxate harrobia ere badago (harago Atxartekoa) eta harrigarria deritzogun arren harriaren erauzketa 25 urtez ziurtatuta dute, hau da, erauzketa eta leheneratzea 2022an amaituko da.

Tragedia guztiak ez dira hain luzeak izan. Faxismoak berrogei urtez iraun zuen, natura eta bizitzaren kontrako ekintza bortitzak ere inoizkorik luzeenak eta latzenak izaten dira, edo nik behintzat, luzesten diet.

Argi dago botere ekonomikoa dinamita kartutxoak jartzen ari dela edonondik, eta beste botere batzuek halaber beste erauzketa mota bat egiten dute euren helburuen kontra doan guztiarekin. Ez dute beste kulturarik onartzen eta badago susmagarria da, ez dituzte besteon hausnarketa historikoak zein politikoak onartzen, ez dute beste bizimodurik ulertzen, ez dute gizakion eskubideen aldeko lana errespetatzen, ez digute bakean bizitzen uzten.

Despota horiek, okerra galanta eginek ere baraka eske hasten ez direnek, herri honetarako kaltea baino desiratzen ez duten horiek, gure ondatsun guztiez gabatu nahi gaituztenek, destaina baino ez dute merezi. Zulaturiko mendiarena bezainbatekoa. Eta honetaz gain, ziorik gabe hiltzen badute gure destaina handiagoa izango da.

seiko urrea

Andolin Eguzkitza



Jokoa ez da errenta

Eta hala eta guztiz ere horretan segitzen dugu gehienok. Joan den astean, esate baterako, maila guztiz desberdineko ekintza bi ikusi ditugu, baina funtsean erabat lotuta daudenak. Alde batetik, Lidon epaile jaunaren hilketa daukat buruan. Euskal Herriko Unibertsitateko CCOOetako batzordeak bidalitako mezu gogoangarria, bestetik.

Lehenengoak ETaren taktikarekin dauka zerikusirik, bortxaz bakarrik lortuko dugu euskaldunok nonbait espainiar eta frantses estatuek Euskal Herriaren eskubideak errespetatzea, eta horretarako estatuaren aparatuari eraso behar zaio. Ez dio ardura nor den nor, on edo txar, aldeko edo kontrako, zuzen

edo oker. Ez dio ardura ezta ere hiritar gehienok, baita abertzaleok garenok ere, halako astakerien kontra baldin bagaude. Ez dio ardura *besteongan* sortzen den oinazearen neurria, beti dagokeelako norbait *gutarrok* sufritutako arekin konparatuko dutena. Eta frantses nazionalismo autista eta primitiboaren parean espainiar nazionalismoaren jarrera erasokor eta latza zein den ikusita, benetan oso zaila egiten zaio norberari ez pentsatzea estatuen aparatuen ordezkariak ETaren zuzendaritzan sartuta ez daudela, eta halandaze euren interesen alde era honetako dinamika absurdu eta basatia sortarazten ari ez direla. Nondik bestela heriotza-zigorra hain modu itsu eta itzelean ezartzeko joera hori? Azal-

pen moduko bat ikustea hobe izanen litzateke behintzat azkeneko komunikatua agertu bezalako jende buru-eritziek ohi duten goraiatze triste eta hutsala baino, Euskal Herriaren alde lehenago eta isilean beste hainbatek sufritu izan ez balu bezala.

Bigarrena «Euskadiko langile-komisioak» izeneko sindikatuaren unibertsitate-sailak unibertsitate-legearen kontrako lanuztea dela eta bidalitako mezua dugu. Euskaraz honela zioen: «...baina aldi berean salatu nahi du... balizko soberanismoaren uholdean arrantzako egiteko ahalegin bizia». Eta erdaraz, «*nos preocupa que esto sea usado como arma arrojadiza en la dinámica política entre el nacionalismo vasco y el Gobierno, que en este caso se expresa como una cruzada por el soberanismo universitario vasco, cuyos contenidos desconocemos*». Eta oraindik badaukate nahikoa bekokia esateko abertzaleok garelako itxi eta ziztrinok eta elkartasunik ezaren defendatzaile nagusiok. Harrapa égiok, Pello!!!

kornerra

Mikel Elorza

Ez da segurtasuna

Askatasunari Dr. Jekyll eta Segurtasunari haren Mr. Hyde partikularra deitu nien, eta azkena nagusitzen ari dela adierazi. Okurrentzien nire zakuan sartzeko ondo egon liteke, baina ohi denez, hor ere gezurrik badela oharitzen gara. Badirudi segurtasun neurriak behar ez den tokian dagoela askatasunik handiena; eta alderantziz, askatasuna egoten dela mugatuen segurtasun *erabateko* erregimenetan. Agintariak dabilten argudioa da, bata ifrentzuan eta beste aurtian aurkezten diguna. Askatasuna murrizten duenak segurtasunaren alde egiten duela esaten du; bata igotzeak bestea jaitea derrigorrez balekar bezala. Baina ez da hala. Askatasunaren alderdi ezkutuari Segurtasuna deitzen diote baina kontrola da, dominazioa, agintea. Hirugarren Bidetik omen zetorren Tony Blair. Hain justu: eskutetik aurrea hartuz, eta ez da trafikoa arau berezia.